

Izena : Teleradiodiagnostic Imaging SL	
Helbidea: Ibañez de Bilbao 3	
Herria : Bilbao	Telefonoa : 94 423 80 40
E – mail aczubi@yahoo.es	Web Orrialdea : www.trdimaging.com

Produktuaren deskribapena. Zerbitzua.

Urrutiko erradiologiaren helburu nagusia prozedura imagenologikoen diagnostikoa ematea da euskarri teknikoko hainbat mailatan. Ikuspuntu horretatik, eta Gomendioen eta Estandarren Europako Batzordearen arabera, irudiaren bidezko diagnostikorako alderdi informatikoei dagokienez, “Irudi erradiologikoen diagnostikoa egiteko komunikazio metodo bat baino gehiago da urrutiko erradiologia; komunikazio-sare zabal bateko instantzien artean informazio medikoa mugitzeko lehen urrats garrantzitsua da”.

Osasun sisteman urrutiko erradiologia zerbitzuak abiaraztearen garapena eta kostua justifikatuta daude ondoko arrazoiak direla medio:

Diagnostiko medikoa, gero eta gehiago, emaitza imagenologikoen eta laborategiko emaitzen mende dago aurkikuntza klinikoen mende baino gehiago. Adibidez, ospitalean onartutako pazienteen % 70-80k aurretiazko diagnostikoa behar du.

Irudien bidezko diagnostikoko modalitate berriek pertsonal mediko espezializatua behar dute lehen hasierako txosten diagnostikoa eskuratzeko eta egiteko. Diagnostikora iritsi ahal izateko parametroen konplexutasuna eta kopurua gehitzen du aurrerapen zientifikoak eta teknologikoak. Espezialisten arteko komunikazioari esker, azkar lor daiteke diagnostiko argia eta zehatza, edo modalitate terapeutikoetan aplikatu daiteke. Hori dela-eta, eguneroko baliabideak bihurtu daitezke telekonferentzia eta telekonsulta.

Egungo bizimoduan, berehala eman behar da euskarri medikoa osasun atentzio eskasa duten arloen kalitatea hobetzeko. Izan ere, laguntza eskasa da biztanle gutxi guneetan edo turismoaren ondorioz urteko zenbait sasotan biztanleriaren dentsitatea handitzen deneko guneetan, itsasoaren erdian petrolio ateratzeko plantetan, etab. Desplazaturiko biztanleei edo hazten ari diren biztanle-kopuruei osasun laguntza jarraitua emateko kezka beharra bihurtu da ez bakarrik eskualde mailan, nazio eta nazioarte mailan ere bai.

Merkatuaren deskribapena.

Hauexek dira Urrutiko Erradiologia sare baten balizko erabiltzaileak:

1 Urrutiko erradiologoak:

Paziente baten irudiak erradiologia zentrotik urrutiko erradiologoarengana bidal daitezke (etxean egon daiteke erradiologoa) berehalako txosten bat egin ahal izateko. Urrutiko erradiologoaren bigarren iritzi espezializatua ere sarri erabiltzen da urrutiko erradiologiako sare zentralizatu batean.

2 Ospitaleko medikuak:

Arreta intentsiboko unitateek premiazko irudi erradiologikoen txostenak behar dituzte, oro har erradiologoak lanean ez dauden orduetan. Kasu horretan, urrutiko erradiologoaren eta arreta intentsiboko unitateko taldearen arteko komunikazioak pazienteen irudien beharrek kontsultak eta txostenak ematen ditu, urrutiko erradiologiari esker.

3 Oinarrizko arreta eta landa medikuak:

Urrutiko erradiologiaren onuradun nagusiak dira. Urrutiko erradiologiaren lehen xedea “Konsulta eta interpretazio zerbitzuak ematea behar handiena duten arloetan”. Landa guneetako oinarrizko arretan oinarrizko diagnostiko erradiologikoa eskura daiteke urrutiko erradiologiarekin konektatuta. Oinarrizko arretako zentroetan eginiko irudiak urrutiko erradiologoarengana bidal daitezke eta berehala eskura daiteke espezialista baten txosten medikoa.

4 Bigarren iritzia edo erradiologiako kontsulta espezializatua behar duten beste mediku edo erradiologo batzuk:

Erradiologo espezializatuak dituzten 24 orduko zerbitzuetako zentroetan, erradiologiako bigarren mailako txostenak eman daitezke urrutiko erradiologiari esker, edo hala behar duten espezialista medikoen arteko

kontsultak egin daitezke. Kasu honetan, egoera larrietan dauden pazienteen diagnostikoa eta tratamendua bizkortu ditzake adituaren iritziak. MEMRAD Medical Group-ek eginiko azterlan baten arabera, 18 minutukoa da irudi erradiologikoak igortzen hasten direnetik urrutiko erradiologoak eginiko txostena jasotzen den arte igarotako batez besteko denbora. Oso mesedegarria izango da urrutiko erradiologia erabiltzea arreta intentsiboko unitateentzat eta larrialdi zerbitzuentzat.

Sortzeko urtea.

2007

Oraingo langileria.

6 pertsona.

Facturazioa.